

Robert Langlands kanadarrak irabazi du 2018ko Abel saria



Robert Langlands matematikaria. ARG.: Wikimedia Commons.


Matematikaren hainbat diziplina bateratu izana aitortu nahian, 2018ko Abel saria eman diote Robert Langlands kanadarrari, Matematikaren Nobel sariaren parekotzat hartzen dena. Hogeita hamar urte pasatxo zituela garatu zuen Langlandsek orain saritu duten teoria, 1967an, eta matematikaren bi esparru lotu zituen hartan: zenbakien teoria eta analisi armonikoa, ordura arte inork erlazionatu ez zituenak. Gerora, ordea, matematikaren teoria bateratu baten gisa hartu izan da haren lana.

Norvegiako Zientzien eta Letren Akademiaren arabera, "pentsatzeko modu berria ekarri zuen matematikan". Langlandsek proposatu zuenak zabalkunde handia izan du ordutik, eta munduko ehunka matematikari joan dira teoria hartatik sortutako Langlands programan parte hartzen. Egun, irakasle da Princeton-eko Ikerketa Aurreratuen Institutuan (AEB). ●

Gizonentzako pilula antisorgailu bat segurua dela frogatu dute

Orain arte garatutako gizonentzako antisorgailu hormonalek ez dute saio klinikoak gaitzirik lortu, eragiten zituzten albo-ondorioak ez zirelako onargarriak. Albo-ondorio nabarmenenak aknea, aldarre-aldaketak, depresioa eta gizentzea ziren. Orain, baina, ia ondoriorik ez duen pilula bat aurkeztu dute.

Washingtongo Unibertsitatean egin dute pilularen saio klinikoa, eta Estatu Batuetako Endokrinologia Batzarrean aurkeztu dituzte emaitzak. 83 boluntariok DMAU (dimendrolona undekanoato) izeneko konposatua hartu dute, ahoz, hilabetez. Horren eraginez, esperma ekoizteko behar diren hormonen maila asko jaitsi zitzaizen. Horrekin batera, dosi handiena hartu zuten asko gizendu egin ziren, baina ez zuten beste albo-ondorio nabarmenik jasan.



ARG.: AEBko Osasun Institutua.

DMAUk testosteronaren aldaera bat eta progesterona konbinatzen ditu. Izan ere, testosterona, ahoz hartuta, azkarregi kanporatzen da, eragin antisorgailua izan baino lehen. Undekanoatoari esker, moteldu egiten da kanporatzea. ●